

Emakumeak soldatapeko lanaren inguruko borroketan



Ikaslea: Manex Mailharin Ortigosa

Ikasgaia: Genero sistemak kultur arteko ikuspegitik

Irakaslea: Marta Barba Gassó

Data: 2018/01/08

AURKIBIDEA

1. GAIA ETA HELBURUA.....	3
2. HASIERAKO GALDERAK.....	3
3. METODOLOGIA.....	3
4. ANALISI TEORIKOA.....	4
4.1. Sexuen arteko lan banaketa: generoaren eraikuntza sozialaren muina.....	4
4.2. Lana eta haren aurreko paper aktiboa.....	5
4.3. Emakumearen lanari errepaso laburra.....	6
4.4. Emakumearen borroka soldatapeko lanaren baitan.....	8
5. ITXIERA ONDORIOAK.....	10
6. BIBLIOGRAFIA.....	11
7. ERANSKINAK.....	12
Aurrekariak.....	12
Elkarrizketa.....	12
Behaketa.....	14
Dokumentuen analisia.....	15

1. GAIA ETA HELBURUA

Hasteko, labur labur azalduko dugu zein den ikerketatxo honen gai nagusia eta zientzuk diren honekin bete nahi diren helburuak. Hala ere, ez dugu asko sakonduko, ikerketaren mamian oso argi geratuko baita zein den auzia eta zeintzuk elementu nagusienak.

Ikerketa honek emakume langilea dauka objektu nagusi gisa, zehazki soldatapeko lanean dagoen emakume langilea, eta zehatzago oraindik soldatapeko lanaren baldintzak salatu eta hobekuntzen alde borrokan murgildutako emakume langile, era kolektiboan hartuta. Haien borrokaren izaeran eta trataeran sakontzea da asmoa beraz.

Hasieran, emakumeen arteko elkartasuna ezagutzea, borroka forma, jarrera, helburuetan arakatzea zen asmoa eta ez dut hori alde batera utzi. Baina esparru horren ezaugarriek eraginda, sindikatuen funtsezko paperarekin egin dut topo eta horrek leku handia hartu du nire analisisian.

Beste asmoetako bat gizonen eta emakumeen borroka alderatzea zen, soldatapeko lanaren arloan, nahiz eta ez dudan sakonki jorratu. Izan ere, sindikalgintzaz ari garenean, gizonak datozkigu burura; baina emakumeak lan merkatuan xurgatuak izan direnetik, haien esparrua ere bada: 1917ko otsailan Petrogradoko ehungintzako langileen altxamenduetatik Las Kellys-etaraino. Emakumeen eremu hori arakatzea da nire xedea.

Gizonak tradizio luzeagoa du soldatapeko lanean eta langile mugimenduan, baina emakumea ere bertan egotera behartua izan da azken hamarkadetan. Ariketa interesgarria da ea baldintza berdinetan edo berezitasunekin integratu den ezagutzea.

2. HASIERAKO GALDERAK/HIPOTESIAK/SUSMOAK

Ikerketa hau emakumeen baldintza materialetatik abiatzen da. Zehazki ekoizpen modu kapitalistaren egungo fasean bizi dituen baldintzetatik. Izan ere, egiten dugun borroka pairatzen dugun egoerarik lotuta dagoela defendatzen dut. Hortaz, emakumeak baldintza bereziak pairatzen baditu, borroka ere ezberdin egiten du? Hori izan da abiapuntuko galdera. Nolakoa izango ote da borrokan dauden emakumeen artean sortzen den *atmosfera*? Nola biziko dute haien borroka? Zein izango da haien prestutasun maila? Nolakoa borrokan ez daudenekiko jarrera? Eta beste kideekikoa? Ze zentzutan ulertzen dute borroka? Gizonen borroka-molde/ulerkera berdina dute edo ezberdintasunak daude?

Hauek izan dira nire ikerlana motibatu duten galderak. Batzuei erantzun posible bat eman ahal izan diet eta besteetan hankamotz geratu naiz. Umiltasunetik hasi nahiko nuke ikerketa hau, baina espero dut interesgarria suertatzea.

3. METODOLOGIA

Iker eremuan murgiltzeko, lehenik eta behin gertuen neukan borrokatik hasi naiz ikerketarekin, Ibaetako kanpuseko garbitzaileen borroketatik. Hauekin elkarrizketa bat eta behaketa xume bat burutu ditut, esparruan murgiltzeko erabili ditudalarik. Elkarrizketa kolektibo bat egin nuen azaroaren 21ean Informatikako garbitzaileekin, haien atsedean orduan, haien gelatxoan. Lau emakume eta gizon bat zeuden bertan eta ez zuten denek erantzuten; pare bat entzuten zeuden eta beste hiruek aldiz, tartean gizona, ahal zutena erantzuten zidaten, tarteka niri erantzuna emateko

eztabaidatxoak izan ondoren. Hala ere, esan daiteke diskurtso kolektibo bat jaso ahal izan nuela, haien arteko ezberdintasunak isladatzeko aukera ere izanez. Behaketa, kanpuseko hitzorduan huts egin ostean, Donostiako erdialdean dagoen Hezkuntza Delegaritzaren parean egin zuten kontzentratu batean egin nuen azaroaren 22an, non batez ere hiriko zentro ezberdinetako garbitzaileak zeuden, eta ez unibertsitatekoak.

Hala ere, borroka hau ez da oso entzutetsua, nik ikertu dudana momentuan ez zegoen oso aktibo eta ezin zen elementu handiegirik atera, ez bazen saiakera handia egiten, gehiegizkoa agian. Hori dela eta, ikerketarako elementu gehiago jaso eta beste kasu batzuekin kontrastatzeko, beste bi borroken inguruko dokumentuen azterketa burutu dut, bata EAEkoa, Bizkaiko egoitzetako emakumeen greba eta bestea, estatu mailakoa, Las Kellys elkartearen, hoteletako geletako zerbitzariak eratuak. Dokumentuei dagokienez, oso ezberdinak izan dira aztertutakoak. Bai lehen mailako iturri gisa, subjektu beraien testuak, haiek haien buruaren inguruan esandakoa; eta baita beste batzuek haiei buruz esandakoa. Bigarren honetan batez ere albisteak aztertu ditut eta iritzi artikulu gutxi batzuk. Hala ere, dokumentuen analisiaren hasieran hobe azaldua dago nola egin den eta alde aurretik, ohartarazi nahiko nuke nahiko era *amateur*-ean egin dagoela.

4. ANALISI TEORIKOA

Lehenik eta behin, analisi teoriko honen logika azalduko dugu eta gero sartuko gara auziaren analisiaren kokapenarekin eta ikerketaren mamiarekin. Hasteko, generoaren eraikuntza sozialaren oinarrian dauden faktoreen inguruan arituko naiz, ikerketa honen marko teorikoa ezarriz. Ondoren, gizartean burututako lanaren eta horren aurreko borrokaren arteko lotura finkatuko dugu laburki. Jarraian, kapitalismoan emakumeak izan duen eta duen karga izango dugu hizpide eta azkenik, emakumearen borrokaren inguruko hausnarketatxo batzuk egingo dira, ondorio borobilik ateratzeko asmo handirik gabe.

MARKO TEORIKOA

4.1. Sexuen arteko lan banaketa: generoaren eraikuntza sozialaren muina

Errealitateak eta errealitatearen inguruko hausnarketa eta ikerketak erakutsita, generoa eraikia den zerbait da. Ez da naturalki barruan daramagu zerbait, gure ADNan, geneetan... Axioma baten modura funtzionatzen du ia. Honela dio Margaret Bullen-ek (2017, 39): “Pertsonak egin egiten dira, bai gizonengan bai emakumeengan adierazten den botere eta eragin baten ariora eta gizartean nagusitzen den eredu hegemoniko baten arabera”. Afera da zergatik egiten diren horrela pertsonak, zergatik sozializatzen dira gizon eta emakume?

Ikerketa feministaren historian zehar erantzun ugari eman zaizkio auziari. Sherry Ortner-rek adibidez, erantzun zuen emakumea naturari lotua ikusia eta hezia izan dela, menpeko gisa eta gizona aldiz, kulturarekin harremanean, hau da, bere burua garatzeko ahalmenarekin, natura eta bera eta beraz emakumea gainditu eta kontrolatzeko bokazioz. Rosaldok, berriz, eremu publiko eta pribatuaren arteko bereizketa egin zuen, lehena gizontasunarekin lotuz eta bigarrena emakumearekin. Gerora, planteamendu monolitiko hauek kritikatuak izan dira, eta bereizkete honen atzean faktore funtsezkoena zein ote den bilatzeko saiakerak ere baretu dira. Asko dira hor dauden faktoreak, genero identitatea eraikitzerakoan barne eta kanpo faktoreak daude Connell-ek dioen moduan. Gizarte-egitura oso bat eusten duen sozializazio prozesu konplexu bat da hor dagoena.

Nik, hala ere, beste zenbait faktoreren garrantzia ukatu gabe, elementu bat azpimarratu nahi nuke

generoaren eraikuntza sozialean: bizitzaren ekoizpenean, hau da, bizirauteko (egun hori baino gehiago ere badena) esfortzu horretan sexu bakoitzak daukan papera eta funtzioa, nahiz eta sexua ez izan funtzio hori banatzeko irizpide bakarra (adina, bizilekua...). Beste era batera esanda, sexuen arteko lan banaketa. Izan ere, lana ezinbestekoa den zerbait da biziraun nahi bada, gizakion esentzia autore batzuen arabera, *homo faber* zioen Marx-ek adibidez. Horrek ez du esan nahi denek lan egin behar dugunik bizirauteko; izan ere, batzuek ez dute horren beharrik, baina norbaitek lan egin dezan behar dute haien biziraupena bermatzeko.

Lana da askoren bizibidea eta beraz, lan horrek eta bere testuinguruak eraikitzen gaitu gu. Hori da gure oinarri materiala. Hori dela eta, sexuaren araberako lan banaketak (antropologiak erakutsi duenez, tokian toki forma partikularrak hartzen dituen arren unibertsala dena, aspaldi-aspalditik) generoa eraikitzen du; edo behintzat eraikuntza horretan bere papera betetzen du. Izan ere, klasean ikusi dugun bezala, lanaren atzean bi dimentsio ezkututzen dira, zereginen arteko banaketa eta batez ere, pertsonen arteko banaketa. Banaketa edo hierarkizazio handia ematen da bizirauteko lana egitera behartuta dauden horien eta lan prozesua martxan jartzeko behar dena (orokorrean kapitala) daukatenez, besteak haientzat lan egitera behartzeko gaitasuna dutenen artean, hots burgesiaren eta langile klasearen¹ artean. Baina lan egiten duten horien artean ere badago bereizketa handi bat, sexu-generoen artekoa. Izan ere, historikoki paper ezberdinak egotzi izan zaizkie gizon eta emakumei eta aurrerago sakonduko dugun bezala, kapitalismoan areagotu da determinazio hori.

Incendo frantseseko agerkari digitalean 2012an argitaratutako artikuluko batean, zehazki, etxeko lanari (frantsesez *travail domestique*; gazteleraz *trabajo doméstico*) egozten dio genero femeninoaren eraikuntzan funtsezko papera, batez ere XIX. mendeaz geroztik:

“El trabajo doméstico es una invención del capitalismo y es definitorio de la forma que toma la relación entre hombres y mujeres en este modo de producción. Aunque haya evolucionado mucho, su rol permanece igual: la reproducción cotidiana y sobre todo generacional de la fuerza de trabajo. Más allá de una reprobación moral ante una “injusticia” (la relación entre hombres y mujeres percibida como una desigualdad), algunos podrían tomar como accesorio la cuestión del trabajo doméstico. Es por tanto central, como lo hemos visto, en la construcción social de los géneros y en el modo de producción capitalista (así pues en la división del trabajo, la primera en darse).”

4.2 Lana eta haren aurreko paper aktiboa (borroka)

Atal honetan oso labur azalduko dugu gure ikerketa objektu nagusia den borroka (kasu honetan soldatapeko lanari lotuta) norberak pairatzen duen eguneroko egoerarekin eta beraz, langile klaseko kideon artean, lanarekin duen lotura.

Lehen esan dugu lanak, gure bizimodua egituratzen duen horrek baldintzatzen dituela gure arteko harremanak. Marxek (1859) esango du izate sozialak kontzientzia determinatzen duela eta ez alderantziz eta beraz, kontzientzia horren azalpena edo oinarria bizitza materialaren kontraesanetan bilatu beharra dagoela. Hala ere, sufrimendua pairatzeak ez du beti ekartzen horren aurka altxatzea, askotan sufrimenduak beldurra baitakar, besteak beste altxatzeagatik kolpea jasotzearen beldurra.

Gurera ekarrita, esango genuke kontzientziaren esnatzea eta edozein kausarengatik borroka egiteko pausuaren atzean egoera konkretu bat dagoela. Egoerak horrek ez du zertan lanarekin hertsiki lotuta

¹ Langile klasea testu honetan bere ulerkera zabalean hartuko da, hots, bizirauteko haien lan indarra besterik ez duen jende multzoa, hura saldu eta etxeko lanetan agortuta ere; eta ez batzuetan izan duen adiera hertsian, industria langileei lotuta.

egon, baina bai bizimoduarekin eta bizimoduaren baitako ingurumariarekin. Historikoki, gizarte mugimenduetan gizonak egon izan dira, haien larruetan zapalketa sufritzeaz gain, horretarako denbora zutelako. Emakumeak, aldiz, espazio horietatik kanpo egon dira azken urteak arte, salbuespenak salbuespen, haien zereginak ez zirelako denborarik libre uzten, eta gainera, haien betebeharrak izan dena (eta dena) uzteak suposatzen zuenaren beldurrez. Izan ere, emakumeak kapitalistarentzat lan indarra daukan gorputz zati bat besterik ez den senarraren (familia heterosexuala zen familia eredu nagusia) lan indarra mantentzea izan du egitekotzat, eta senarrak gizarte/langile mugimenduetan parte hartzen bazuen, berak mantendu behar zuen bitartean.

Aipatzeko beste elementu bat, Eva Alfamak (2005) mahai gaineratzen duena, hauxe da: "mugimendu ezberdinek sexu batentzat edo bestearentzat esanguratsuak diren gaiak jorratzen dituzte". Langile mugimenduak, hasieran, soldatapeko langileak gizonak ziren heinean, gizonei eragiten zizkieten gaiak lantzen zituzten, eta beste mugimendu batzuk, berriz, emakumei interesatzen zaizkienak. Nolanahi ere, egun emakumeak lan merkatuan ere badaude eta beraz, bertan bizitzen duten egunerokoari aurre egiteko antolatzen hasiak dira azken urteetan, eta era masiboan gainera, ia gizonen pare.

Behin norberaren bizimoduaren (eta horren baitan lanaren) eta paper aktibo horren arteko lotura ikusita, emakumeak kapitalismoaren baitan bortxaz asumitu behar izan duen papera ezagutuko dugu; ondoren, lan gatazketan emakumearen borroken nolakotasuna aztertzea pasatzeko, zeina ikerketa lan honen helburua den.

4.3 Emakumearen lanari errepasso laburra

Gorago esan dugu genero femeninoaren eraikuntzan funtsezko papera betetzen zuela etxeko lanak². Baina zertaz ari gara etxeko lanez ari garenean? Izan ere, etxean beti egin behar izan da lana. Baina berdina izan al da garai historiko edo ekoizpen modu guztietan. Guk ezezkoa defendatuko dugu.

Izan ere, garai aurrekapitalistetan landa bizimodua zen nagusi, familia handiak, etxe handiak... Bertan familia zen ekoizpenaren eta erreprodukzioaren erdigune. Horrek ez du esan nahi denek lan guztiak egiten zituztenik, noski. Lan banaketa orduan ere argia zen: emakumeak egiten zituen etxeko eta inguruko lanak eta gizonak nekazal lanak. Hala ere, eremu berdinen parte dira bi prozesuak, ekoizpen soziala eta etxeko ekoizpena, esan dezagun; eta nahiz eta lan ezberdinen bidez bi sexuek parte hartzen dute bietan eta lan guztiak ziren ezinbestekoak etxeko komunitatearentzat (Artous 1978, 16-17).

Kapitalismoaren etorrera eta orokortzearekin, merkantzien ekoizpena bihurtu zen ekoizpenaren erdigune. Jada ez da kontsumitzeko ekoizketa baizik eta trukearen bidez, kapital gehiago sortzeko. Prozesu horretan, langileen familia guztiak jabetzarik gabe geratuko dira, haien lan indarra saltzea beste aukerarik gabe. Kapitalismoaren garapenean, burgesgiak fase bakoitzean bere menpeko klaseko kideekin egokien ikusten duena egiten du. Hasiera batean, XIX. mendeko lehen erdialdera bitarte, eskura duen lan indar guztia erabiltzen du, gizon zein emakume, haur zein heldu (Genres & Classes 2012). Baina laster ohartzen da horrek kolokan jartzen duela langile klasearen existentzia bera. Hortaz, emakumeak etxean itxiak geratzen dira. Ondorioz, lan industrialak (beste batentzat egiten dena) eta etxeko lana erabat bereizita geratuko dira, bai fisikoki eta baita geografikoki ere. Ekoizpena eta erreprodukzioa guztiz bereizita geratuko dira, eta erreprodukzioak, lan domestikoa zerbitzu pribatuaren forma hartuko du. Jada ez da komunitatearentzat beharrezkoa den lan bat

² Etxean egindako lanak, etxeari loturikoak (garbiketa, sukaldeko lanak eta arropari loturikoak) eta etxeko kideen zaintzari loturikoak. Definizio batzuek lotura soziala eta lan afektiboak ere txertatzen dituzte, "zerbitzu sexualak" barne.

izango, baizik eta merkantzien ekoizpenaren, lantegietako lanaren mantenurako zerbitzu bat, lan indarraren erreprodukzioa hain zuzen. Honek bi sexuen bereizketa areagotuko du, zeharo (Artous 1978, 17-18). Momentu hori da etxeko lana eratzten den momentua, egun ezagutzen dugun moduan; XX. mendean zehar emakumeen eraikuntza soziala ezaugarrituko duena, bizitzaren erdigune izanik, heziketa hortara bideratuz, eta abar (Genres & Classes 2012).

Aurrez aipaturiko artikuluan etxeko lanaren nolakotasunaren aldaketa azpimarratzen da. Lehen egiten ziren etxeko lan asko, autokontsumora bideratuak (arropa, argizaria...), jada ez dira egiten eta alderantziz, gaur etxeko lanaren erdigune direnak lehen ez ziren hain ohikoak: garbiketa handiegirik ez zen egiten; haurren heziketa ez zen egun bezalakoa, haurrak oso laster heldu txiki baten gisara hartua baitzen (Genres & Classes 2012).

Horixe izan da langile klaseko emakume gehienen bizimodua orain dela mende erdia bitarte. XX. mendearen bigarren erdian, hala ere, kapitalismoak emakumeak esfera pribatutik atera eta lan merkatuan integratu zituen, beharra edo interesagatik eta ez etikagatik. Emakumeak orduan, soldatapeko lanean sartu ziren era masiboan, batez ere hirugarren sektore gia ezagutzen dugun horretan. Hori ahalbidetu izateko, etxeko zenbait lan sozializatuak izan ziren: arropa eta sukaldeko lanak errazteko elektrodomestikoak, hartzaindegiak... (Genres & Classes 2012).

Ondorioz, ekoizpen modu honek kontraesan handi batekin egin du topo. Alde batetik, etxeko lana egitea beharrezkoa du, lan indarra erreproduzitu nahi badu, orain arte emakumeari ezarri dion lana; baina aldi berean, emakumearen lan indarraren beharra dauka ekoizpen sozialean. Hortaz, bi aukera dauzka kapitalismoak, gizon langilearen konplizitatearekin noski, oso eroso baitzaio honi lanetik etxera heldu eta dena egina izatea: emakumeak soldatapeko bihurtzea, etxeko lanaren eta beraz, lan indarraren erreprodukzioaren kalterako; emakumea etxean mantentzea, euren lan indarra era zuzenean esplotatzeko aukera galduz; edota biak uztartzea bi lanak arinduz. Azken hau da hain zuzen ere aukeratu duena: etxeko lana asko erraztu du azken urteetan, gailuak hobetuz, derrigorrezko hezkuntzaren bidez, ludoteka eta bestelakoen bitartez; eta lan merkatuan jardunaldi partzialean integratzea (Genres & Classes 2012). Emakume langileek ez dute bien artean aukeratzeko aukerarik eta biak egitera *kondenatuak* daude, gizon langilearen konplizitateaz, noski. Marina Sagistazabalek eta Matxalen Legarretak *lan karga globala* deituko diote horri (Sagastizabal & Lejarreta 2016, 4), emakumearena gizonarena baino handiagoa delarik. Informatikako garbitzaileei egindako elkarrizketan argi adierazi zuen batek bere karga globala, amaierako eranskinetan irakur daitekeen bezala.

Hortaz, aztertutako dokumentuetan argi ikusi ahal izan dugun bezala, emakumeak lan merkatuan baldintza propioak pairatzen ditu. Soldatapeko langile bihurtu da, edo beste era batera esanda, proletarizatu da, baina ez dio emakume izateari utzi. "*Emakume izatearen patuak lanean ere jarraitzen ditu*" (Artous 1978, 12). Orokorrean, eta salbuespenak salbuespen -geroz eta gehiago diren salbuespenak-, kualifikatu gabeko lan indarra da emakumeena, langabezia arrisku handiagoarekin, bere soldata baxuagoa da osagarri gisa hartua baita, eta gehienetan lan *femeninoetan* aritzen dira. Hortaz, argi dago kapitalismoak emakumea proletarizatzen duela talde espezifiko bezala (Artous 1978, 12), eta baldintza okerrenak bere gain jausten direla, etxeko lanen karga extra izateaz gainera. ELAko delegatu batek aztertutako dokumentuetan esaten zuen bezala, lehen lan hau doan egiten bazuten, zergatik ez orain diru gutxiren truke? Hau da kapitalistaren desioa.

Lan banaketari dagokionez izandako bilakaerak, eta egungo baldintza espezifikoek, eta oro har, genero sistemak, eragina izango dute beraz, jarraian aztertuko dugun auzian: lan gatasketan emakumearen borrokaren izaeran.

IKERKETAREN AUZIA

4.4 Emakumearen borroka soldatapeko lanaren baitan

Aurrez aipaturiko guztia oinarri izanda, emakume langileek lan-sektore feminizatuetan, eta beraz, gehiengo handi bat emakumea den sektoreetan egindako borroken nolakotasunaz arituko gara. Horretarako, orokorrean emakumeen parte hartze politikoaz ere arituko gara, gero gure auzian zuzenago sartzeko. Ikerketa honetan, emakumeen hiru borroka azertu ditugu, amaierako erasnkinetan txertatuak daudenak. Hala ere, asmoa ez da ondorio borobilak ateratzea, baizik eta errealitatearekin era xumean kontrastatutako hausnarketa lan bat egitea, etorkizuneko lanak errazte aldera.

Jakina da emakumeak bere gain jausten den (edo ezartzen dioten/diogun) karga bikoitza dela eta, militantzia esparruetatik kanpo geratu dela. Sufragismoarena da emakumeek espazio politikoa hartu izanaren adibide historiko ezagunenetako bat, eta mugimendu horretan aktiboen egondakoak ez ziren haien bizitza (eta familiarena) aurrera ateratzeko zailtasunak zituzten emakumeak. Hobe esanda, bizitza ia erabat konponduta emakumeak ziren, senarraren menpe egonda ere. Emakume langileak, berriz, konpromezu politikoaz ez du asko jakin, orain dela gutxira arte; kapitalismoak ezarritako espazio publiko eta pribatuaren arteko zatiketa bortitzean bigarren honetan ezkutarazi baitute. Artousek dioen bezala (1978, 21), kapitalismoarekin estatu modernoa garatuko da arlo politikoa gainerako bizitza sozialetik bereiziko da. Hortaz, senidetasun harremanen eta harreman politikoen arteko apurketa handiagoa izango da, aurreko faseetan baino, eta emakumea etxean giltzapetua geratuko denez, esfera publiko edo politikoan ez du parte hartzerik izango.

Nolanahi ere, lehen esan dugun bezala, XX. mendearen bigarren erdialdean emakumeak lan merkatura egingo du salto eta bereizketa hori lausotzen joango da. Poliki-poliki espazio politikoan emakumeak agertzen joango dira. Baina nola? Lan merkaturian emakume gisa (desabantaila egoeran) tratatua izan den moduan, eremu politikoan ere hala izango da. Eva Alfamak esaten duen moduan (2005), genero posiziotik hartzen dugu parte mugimendu politikoetan, beste faktore batzuen artean, noski. Emakumeak, beraz, espaziorik konprometituenean ere ez du galduko bere menpeko izaera: bere lana ikusezina izango da, ikusgarria den lanari aitortza gutxiago emango zaio, erabakiguneetan sartzeko zailtasunak izango ditu, bere hitzak ez du balio berdina izango... Bestalde, askotan emakumeen inguruko espazio militanteetan garatuko dute haien praktika militantea batez ere; bizipenetatik jaiotzen den joera normala den arren, beste espazioetan lekua egitea gehiago kostatzea eragingo du horrek.

Auzi horren inguruko analisia egiten dute Eva Alfama eta beste batzuek *Género y movimientos sociales: la participación de las mujeres en la Plataforma en Defensa del Ebro* artikuluan, baina bertan mugimendu misto batean zentratzen dira eta gure kasua ez da berdina. Gu batez ere emakumez osaturiko borroketan zentratuko gara, eta gainera, emakumeak denbora oso gutxi daraman espazio bateko borroketan, lan munduko borroka femeninoetan hain zuzen. Egindako elkarrizketa, behaketa eta aztertutako dokumentuetan ondorioztatutakoa era xumean aurkezten saiatuko naiz hurrengo lerroetan.

Borroka hauetan ezin da esan emakumearen parte-hartzea ikusezina denik, emakumeek osatzen baitute borroka bera. Baina bai esan daitekeena ez dela gizonen borroka ikusiak diren begi berdinekin ikusten. Batetik, hedabideek ez diete zabalpen berdina ematen. Las Kellys elkartearen irismena oso urria da, adibidez, Asturiasko meatzarien borrokekin alderatuta. Egia da, hala ere, ez direla egoera berdinak. Baina aipatzekoa da, esate baterako, La Razon Espainia mailako egunkarian ez zela Las Kellys-en inguruko albiste bakar bat ere agerti. Hemen, Euskal Herrian beste adibide

esanguratsu bat dugu, Bizkaiako zaharren egoitzetako langileen grebarena. Euskal Herrian azken aldian izandako grebarik luzeenetakoa da, ezbairik gabe eta ez da jendearen aho eta belarrietan beste gatazka batzuk bezain beste egon (Fagor, Arcelor Mittal, Inasa...). Hedabideek ezkuturazten dituzte, enpresek eta botere publikoek mespretxuz tratatzen dituzte, gainetik begira, eta iritzi publikoak ez du interesik erakusten. Ixilaraziak dira azken finean borroka hauek. Berriki sartu da emakumea lan munduan eta batzuek ez dute hori ikusi nahi izan; eta orain bere lanpostuan ahotsa altxatzen eta pankarta eramaten ikustean, beste albo batera begiratzea nahiago dute. Ez dute onartu nahi emakumeak haien kabuz den lan baldintzen alde borrokan daudela. Dolores Julianok (2009) dio emakumeen lege hausteak anti-natural moduan hartzen direla, beraien jarrera naturala ez litzatekeelako izan beharko legeak apurtzea. Hemen antzeko zerbait gertatzen ote den susmoa dut, ez dela naturaltzat ikusi nahi emakumea lan merkatuan gogorki zapaldua badago, han hemenka horren aurrean altxatzea.

Bestalde, emakume borrokalarien barne prozesuei dagokienez, bi prozesu kontraesankor aipatu nahiko nituzke. Batetik, hiru borroketan atera den nekea, desmoralizazioarekin batera. Bereziki nekatuak somatzen dituzte edo zituzten haien buruak azterturiko borroketako partaideek. Ez dago zalantzarik Sagastizabal eta Legarretak aipatzen duten presentzia-ausentzia hirukoitzaren ondorio dela neke hori. Desmoralizazioa aipatzen dute informatikako fakultateko garbitzaileek, egoera aurrera ez doala ikusten duten bitartean. Beste alde batetik, ahalduntzea aipatu beharra dago. Amaieran txertatua dagoen dokumentuen analisiaren bukaeran agertzen den bezala, borroka hauek askotan emakumeak horrelako prozesuetan ahalduntzeko tresna ezin hobea dira, haien burua kolektibo baten parte sentitzen dutelako eta eragiteko gaitasuna, borrokarako aukera antzematen dutelako haien baitan. Ahalduntze horrek, gainera, marko teorikoan aipatutako zama bikoitz horren kontzientzia hartu eta bere ardurei muzin egiteko erraztasun handiago izatea ekartzen du, ELAko delegatu batek Argiari kontaturiko pasarte batean irakur daitekeen bezala: lehen ordulariari begira ematen zuten manifestaldia, bazkaria prestatzera joan behar zutelako; orain berriz, kideekin batera geratzen dira, etxean bera gabe moldatzen has daitezen. Honek bi konturi buelta emateko aukera irekitzen du: emakumeari egokitutako lan kargari eta lan munduko borroketan emakumearekiko dagoen indiferentzia edo mespretxuzko trataerari.

Azkenik, sindikatuen eta langileen arteko harremanaz hausnarketa burutuko dugu, horrek dauzkan ondorioez eta salbuespen batzuez. Guk hiru borroka aztertu ditugu eta hiruetan aipagarria da emakumeen ahalduntzea, langile gisa pairatzen dituzten zapalkuntzez ohartzeko hutsa ahalduntzea baita, eta are gehiago, emakumeentzat eremu ez ohikoa izanda martxan jartzeko hautua ematea bera ere. Hala ere, borroka prozesuaz ezin dugu berdina esan. Euskal Autonomia Erkidegoan azterturiko bi (bata zuzenean eta bestea dokumentuen bidez) borroketan sindikatuak markatzen zuten erritmoa, haiek ziren borroketako ahots nagusia, diskurtsoa eta moldeak ezartzen zituztenak. Azken finean, nahiz eta auzi bakoitzarekin konprometituriko jendea izan, sindikatuak delegatuak ez dute langileen egoera haien azalean pairatzen eta soldatapeko lan gisa hartzen dute sindikatuko lana, gogo gehiagoz edo gutxiagoz eginda ere. Zenbaitetan, Ibaetako garbitzaileen kasuan esaterako, borrokaren aurpegi publiko diren delegatuak, emakumeak izan ohi badira ere, ez dira inoiz lanean aritu haiek dinamizatzen duten borrokaren lanbidean. Ibaetako garbitzaileen kasuan buru belarri dabilen ELAko arduraduna, esate baterako, abokatu lanetan ibili da eta ez garbiketan.

Nire ustez, hau talkan sartzen da ahalduntze integralarekin. Aukera ematen die inoiz ireki gabeko bideak urratzen hasteko, baina ez dira haien interesen defentsan osotasunean murgiltzen: sindikatuak markatzen dute zer den soldata duin bat aldarrikatzea; lan orduak murrizteari dagokionez, haiek egiten dituzte kalkuluak exigentziak zehazteko; haiek hausnartzen dute zer elementuri eman garrantzia borroka komunikabideetara ateratzeko garaian. Ibaetako kasuan, adibidez, sindikatuen artean zehaztu zuten ikasturte honetarako (2017-2018) mobilizazio fase osoa

eta asanblada bakar batean aurkeztu zieten afiliatu guztiei. Langileek, noski, ez dute tresnarik garatu ahal izan era aldarrikapen hau edo bestea egokia den baloratzeko, edota presio mekanismo hau edo bestea eraginkorra den hausnartzeko; eta gutxiago ordu bat edo biko asanblada batean. Hortaz, planteamenduak onartzea eta mobilizazioetan agertzea izaten da askotan haien papera, ez bada greba batean murgilduta daudela, orduan haien papera garrantzitsuagoa delarik. Baina oraindik larriagoa da asuntza; planteamenduez gain, planteamendu horiek aurrera eramateko eginkizunak ere sindikatuek egiten dituzte, eta ez bakarrik zeregin burokratikoak (baimenak...), baizik eta pankartak eta eskuko kartelak ere. Egonen dira pankarta eusten dauden emakumeak, pankarta bat egiten ikasteko aukerarik zabaldu ez ditutenak. Hortaz, hemen ere sindikatu eta langileen arteko lan banaketa larria da eta horrek ondorioak dakartza gure ikasketa politiko-praktikoetan. Hala ere, azpimarratu beharrekoa da hau ez dela bakarrik emakumeen kasuetan ematen, nahiz eta susmoa dudatan batez ere kasu hauetan gertatzen dela, edo intentsitate handiagoz ematen dela joera hau. Ezkerraren eta oro har, kontzientzia eta mugimendu politikoaren desmobilizazio orokortuaren ondorio da eta gizonen sektoreetan ere sindikatuen asistentzialismoa handia da. Hala ere, hau etorkizuneko ikergai bat izan daiteke; ni ez naiz ondorioak ateratzen ausartuko.

Nolanahi ere, ezin dugu atal hau amaitutzat eman Espainia mailako emakumeen borroka autonomo geroz eta indartsuago bat aipatu aurretik. Orain dela gutxi (2016ko martxoan sortua eta urrian aurkeztua) sorturiko Las Kellys elkarteaz ari gara, hiri turistikoetako hoteletako zerbitzariez (geletakoak eta ez jantokietakoak) osaturikoa. Hauek sindikatuekiko era autonomoan sortu dute elkartea, eta diskurtsoa askotan haien aurkakoa da, edo behintzat ez dute haienganako konfidantza osorik. Haien determinazioa, soldatapeko lanaz gain askotan zaintza eta etxeko lanak haien gain dituzten emakumeak izanda, irakaspen handia da langile zapaldu ororentzat. Kasu honetan has gaitezke ahalduntze politiko integralago batez hitz egiten. Baina zergatik osatu dute borroka autoantolatua bat emakume hauek? Zein dira faktoreak? Amaierako atalean saiatuko gara auzi horri erantzun hipotetiko bat ematen, kritikak jasotzera guztiz irekia dagoena.

5. ITXIERA ONDORIOAK

Orain arte ikusi dugu emakumeak lan karga bikoitza daukala ekoizpen eredu honen fase honetan, lan merkatuan baldintza bereziekin dagoela zapaldua eta borroka eremura salto egiten duenean, trataera espezifiko (eta ez abantailatsua prezeski) bat jasotzen duela. Ikusi dugu, hala ere, ahalduntze prozesua asko areagotzen dela aztertutako borroketan, baina zenbaitetan sindikatuen artalde izaten besterik ez dutela ikasten. Ikusi dugu hala ere, hori ukatzera iritsi den kasu bat. Zergatik ote? Hona hemen sasi ikerketa hau amaitzeko proposamen bat, benetako ikerketa beharko duena atzetik.

Emakumeak bai lanean eta baita borrokan ez badio emakumetasunak dauzkan -ez esentzian, baina bai gizarte kapitalistak sortzen duen esentzian- ezaugarriak izateari uzten, molde propioak beharko ditu guda zelaian. Identifikatua sentitu beharko da aldarriekin, moldeekin eta diskurtsoan bertan bere egoera ikusi beharko du isladatua, ez baita berdina gizon langilearen zapalketa emakume langilearenarekin alderatuta. Beraz, diskurtso ekinbide propioa behar da bizitza materialaren erreproduzioaren baitako lan banaketan emakumeak daukan papera osotasunean jorratzeko. Hortaz, baliteke sindikatu batzuek hori ulertzeko saiakerak egin izana eta beraz, borroka eskaintza erakargarriagoak egin izana eta beste batzuek, berezitasun horiek ezkutatu nahian, gizonen borroken eskema bera erabiltzearen ondorioz, emakumeak mobilizatzeko benetako zailtasunak izatea.

Aztartu ditugun borrokei dagokienez, posible da ELA (esate batera genero arlo bat dauka eta maila nazionalan bi pertsona dauka konkretuki alor hori lantzen) egoera hori irakurtzen jakin izana eta

horregatik EAEko bi borroka horietan borroka autonomoa garatu ez izana. Kontrako aldean, Espainia mailako sindikatuek (CC.OO, UGT...) agian ez dituzte berezitasun horiek identifikatu, edo hobe esanda, ez dituzte ikusi edo onartu nahi izan, eta beraz, emakumeek borroka autonomoak sortu behar izan dituzte haien egoerari erantzuteko. Gainera, borroka autonomo horien lerroetako bat sindikatu kate handiei presioa egitea da. Bestalde, aipatzekoa da ere Kanariar Uharteetan Sindicalistas de Base sindikatua lan handia egiten ari dela hoteletako zerbitzariekin, Las Kellys elkarteaz gain, baina haien babesarekin.

Hipotesi honek hala ere, kontraste lan handia beharko luke. Batetik, gizonen lan sektoreen borroken eta emakumeen sektoreen arteko konparaketa lan mardul bat beharko luke; eta baita sindikatu ezberdinek ezberdintasun horiek jorratzeko moduen artekoa eta borroka autonomoek lantzeko moduen artekoa. Hortxe beste ikerketa batzuetarako proposamena!

6. BIBLIOGRAFIA

Alfama i Guillén, Eva et alt. 2005. "Género y movimientos sociales: la participación de las mujeres en la Plataforma en Defensa del Ebro." GRUPO DE TRABAJO 22: Mujer y Política: el papel de las mujeres en las democracias actuales. VII. Congreso Español de Ciencia Política y de la Administración: Democracia y Buen Gobierno.

Artous, Antoine. *Les origines de l'oppression des femmes* eta Vinteuil, Frédérique. *Sur les origines de l'oppression des femmes*. Itzul. Helga Pawlowsky. *Los orígenes de la opresión de la mujer*. Fontamara: Barcelona

Azpiazu Carballo, Jokin. 2012. "Gizon taldeak eta maskulinitatearen inguruko diskurtsoak: EAEko talde batzueganako hurbilpena." Ikasketa feministak eta generokoak Masterra. UPV-EHU

Bullen, Margaret. 2017. "Genero-sistema eta jaiak: begirada antropologiko bat Euskal Herriko errealtateari". Guilló Arakistain Miren (Koord) *Festak, genero-harremanak eta feminismoan*. UEU: Donostia.

Juliano, Dolores. 2009. "Delito y pecado. La transgresión en femenino". *Política y Sociedad*, 46. 79-95 <http://www.cdd.emakumeak.org/ficheros/0000/0561/POSO0909130079A.pdf> (azken aldiz 2018ko urtarrilaren 8an ikusia)

Marx, Karl. 1859. *Prólogo a la Contribución a la Crítica de la Economía Política*.

"Prolétaires de tous les pays, qui lave vos chaussettes?" 2012. *Genres & Classes*, seriez kanpoko zenbakia. INCENDO, Sur le rapport entre genres & classes. Itzul. Agintea Hausten <https://agintehausten.wordpress.com/2015/06/09/proletarios-de-todos-los-paises-quien-lava-vuestros-calcetines/> (Azken aldiz 2018ko urtarrilaren 8an ikusia)

Sagastizabal, Marina, eta Legarreta, Matxalen. 2016. La triple ausencia-presencia: una propuesta para el estudio de l trabajo doméstico, el trabajo remunerado y la participación sociopolítica. *Papeles del CEIC*, núm. 1, 1-29. Euskal Herriko Unibertsitatea, Bizkaia.

7. ERANSKINAK

AURREKARIAK

Donostiako kanpuseko Garbialdi enpresako plantillari dagokionean (Karlos Santamaria zentroa kanpo geratzen da), soilik bi emakume daude bestelako postuetan (gidari espezialista) eta gainontzekoak garbitzaileak dira. Gizonen artean, aldiz, asko daude espezializatutako postuetan eta garbitzaile gutxi. Garbitzaile postuetan daudenak lanaldi erdian daude eta beraz, soldata baxuekin eta gizonak, aldiz, bestelako postuetan daudenez, lanaldi osoan daude. Horretaz gain, sektoreko hitzarmena 2014koa da; aspalditik ez diete soldatarik igo (azken igoera urtean 18€; hilabeteko 1.5€); ikasturteko lehen bajatik aurrera, hurrengoetan ez dute ehuneko ehuna ordaintzen, etengabe jaisten doazelarik: bigarreanean %70, hirugarreanean %50...

Baldintza horiek salatu eta hobekuntzak lortzeko iaz zenbait mobilizazio jarri zituzten martxan; batez ere, kontzentra zein manifestazioak izan ziren eta greba bat azaroaren 7tik 11ra. Ikasleek ere elkartasuna adierazi zuten mobilizazio horietan, greban fakultateak zikintzen... Ni pertsonalki, goizeko seietan pikete batera joan eta kaleko poliziatzat hartu ninduten, ikaslea nintzela argitu nien arte. Guzti horren emaitza: hutsaren hurrengo. Garbitzaileetako batek ironikoki: *ez genuela ezer lortu? Greba dela eta soldata zati handi bat kentzea! Nola ez genuela ezer lortu?*

Aurten berriz ere, mobilizatzen jarraitzeko hautua hartu dute. Urriaren 26tik astero ari dira kontzentrak egiten. Donostiaren kasuan, unibertsitatea, ikastetxeak eta hezkuntza delegaritze txandakatzen dituzte eta ikasturtea aurrera joan ahala, mobilizazioak intentsifikatzeko asmoa dute.

ELKARRIZKETA

(Lehen behaketa azaroaren 14an egin nahi nuen, baina berandu heldu nintzen kontzentrazioa eta jendea joaten ari zen. Hala ere, garbitzaile talde bat eta ELAko delegatua borobil batean zeuden hizketan. Bertara joan nintzen nire lanaren berri ematera eta hurrengo deialdiaren berri izatera, eta konfidantza handiz hartu ninduten. Gogoan zuten ni izan nintzela iaz piketera hurbildu nintzena eta polizia *sekretutzat* hartu nindutena. Galdetu nien ea hurrengo kontzentraren ostean aukera izango zuten laburki galdera batzuk erantzuteko; eta hala erantzun zidaten: *como si quieres venir en el almuerzo!*)

Hortaz, hurrengo astean (azaroak 21), asteartean, goizeko 10etan Informatikako fakultatera joan nintzen garbitzaileen gelaz galdezka. Haietako bat aurkitu nuen garbitzen eta esan zidan 10:30 aldera jaongo zirela. Beraz, ordurarte itxoin nuen pasilloko banku batean eserita eta garbitzaile bat albotik pasatzean berarekin joan nintzen hamarretakoa hartzen duten gelara. Hasieran, bi bazeuden ere, bost minututan zehar beste hiru iritsi ziren. Osotara, lau emakume eta gizon bat zeuden bertan; 50 urte ingurukoak denak. Esan zutenaren arabera, normalean zuzenbideko garbitzaileak ere hurbildu ohi dira hamarretakora, baina egun hartan ez zuten joateko asmorik.

Aipagarria iruditu zitzaidan nola markatzen zuten plantillako emakume eta gizonen arteko aldea. Emakumeak kontratatzen zituzten gutxiago ordaintzeko. Gizona izan zen azkena iristen eta aurretik, ez zuten jakin gizonaren lanpostua zein zen esaten (kristal garbitzailea, gidaria...). Gizona aurretik ere garbitzailea izan bazen ere, postu hobekuntza eskaini zioten eta bertan zegoen emakume batek salatu zuen berari ez zaiola horrelako aukerarik eman. Gizonak erantzun zien hori zela ez zutelako ikasi (kasu honetan, kristalak garbitzeko makina gidatzeko karnetaz ari ziren) eta garbitzaile batek era argian erantzun zuen, esaldi bakarrean emakume langileen egoera laburbilduz: *espezialisten*

karneta atera nahi badut, ez daukat denborarik; etxea eta seme-alabak zaindu behar ditut.

Borrokari eta antolaketari dagokionez, ohartu nintzen emakume langileen borroka ikertu nahi nuen arren, egungo bizi sindikalgintza ereduaren ondorioz, delegatu sindikal *artzaien* eta langile *ardien* arteko harreman asistentzialistarekin topo egiten nuela. Hasieran sindikatu bakoitzak bere bilerak egiten ditu eta ondoren, sindikatu guztien artekoak. Bost sindikatuen artean (ELA, UGT, LAB, CCOO eta ESK, langileen babesaren arabera ordenatuta) mobilizazio proposamenak egiten dituzte eta langile asanbladak deitu horiek onartu, moldatu edo baztertzeko. Elkarrizketatuen arabera, bilera horietara lehen ia langile gehienak joaten ziren, afiliatu zein ez afiliatu, baina egun batez ere afiliatuak doaz. Hala ere, garbitzaile gehienak daude afiliatuta sindikatu batean edo bestean, ELA delarik ordezkari handiena duena. Kontua da afiliatzeaz gain, eta bere kasuan kuota ordaintzeaz gain, gainontzeko guztia sindikatuetakoa delegatuek (sindikatuetan lan egiten duten horiek) egiten dutela: pankartak, komunikatuak, eskuorriak, baimenak eskatu... Garbitzaileek egiten dutena da deialdietan haien presentzia bermatzea, ahal duten kasuetan.

Sindikatuaren artean, gainera, badaude talkak langile borrokaren batasuna zailtzen dutenak. Haiek hautematen duten ezberdintasun nabariena erresistentzia kutxan dago. ELAk erresistentzia kutxa eraginkorra dauka; LAB horrekin saiatzen ari da, nahiz eta beste baldintza batzuk dituen; ESK-k txikia izan arren zerbait badauka; baina UGT eta Comisiones Obreras-ek ez daukate horrelakorik. Informatikako garbitzaileak, esaterako, ELAn daude afiliatuta eta 20€ ordaintzen dute hilean. Horrek ondorio zuzenena grebak deitzean dauka; izan ere, afiliatuta ez dauden, edo erresistentzia kutxarik ez duten sindikatuetakoa langileek ez dute grebara joan nahi, enpresak kentzen dien soldata zatia ezin baitute asumitu. Horrek greba garaian gatazkak dakartza garbitzaileen artean, gerora ere irauten dutenak.

Haien bizipen, jarrera eta sentimenduez galdetuta, *desmoralizazio* hitza erabili dute behin baino gehiagotan. Iazko borrokaldiaren ondoren, pasatakoa pasa ondoren, ez daukate esperantza handiegirik, batzuen hitzetan *ezertarako ez (de nada)*. Enpresek botere handia dute eta langileek ez dute mobilizaziorako gogorik, ez dago batasunik. Batasun hori da hain zuzen ere faltan botatzen dutena. Baina horren ordez, *rollo txarra* da haien artean dagoena; prest daudenak batuta daude eta haien hamarretakoek zein martxoaren 8 guztietan (2012ko martxoaren 10eko Diario Vascon) egiten duten bazkariak erakusten duten bezala. Baina *jendea erreta dago; badago elkar begiratzeari uzten dionik*. Borrokan ez daudenekiko urruntzea sumatzen dute; haiek (informatikakoek) errespetatzen dituztela diote, eta trukean barreak jasotzen dituztela, eta ez dutela errespeturik merezi. Izan ere, beste batzuek haientzako hobekuntzak lortzeko esperoan daude. Horri dagokionez, pare batek gogoratu dute 22 urterekin lanean sartu zirenean, 1985-87 inguruan, grebak egon zirela eta haiek ere babestu zituztela, lorpenak haien mesedetan ere izango zirelako. Horren atzean langabezia dagoela azpimarratzen dute, lehen lan bat utzi eta ondoko izkinan beste bat lor zitekeelako, eta egun aldiz, ez dela horrela, lanpostua galtzeko beldurra dagoela.



BEHAKETA

Elkarizketa egin eta hurrengo egunean, azaroaren 22an, hezkuntza delegaritzan kontzentrazioa zegoen eta bertara joan nintzen. Unibertsitateko garbitzaileek lanean egon behar zutenez, ez ziren joan, eta bertan zeuden gehienak ikastetxeetako garbitzaileak ziren.


Errepidearen bi alboetako zuhaitz eta faroletan prezinto zintetan kartel ugari zeuden itsasita eta lurrean koloretako ehunka eskuorri. Paradoxikoki, garbitzaileak kalea *zikintzen* ari ziren. Hezkuntza delegaritzaren aurreko espaloian kokatuta zeuden 30 pertsona inguru, gehienak emakumeak, 3 edo 4 gizon besterik ez. Aurrean, "Contratas de limpieza: educación y UPV; por un convenio DIGNO; GARBIKETA BORROKAN" zioen pankartan sei emakume eta ezkerreko ertzean gizon bat. Atzean, zenbait kuadrillatxo zeuden, haien artean hizketan. Horietako batzuk kartel berezi batzuk zituzten eskuan. Izan ere, kartelak fregona edo erratzen makiletan eutsita zeuden, kartoizko taulatxo baten bidez. Esan zidatenez, horiek ere sindikatuek egin zituzten, kasu honetan UGTk. Bestalde, zenbait karteletan garbitzeko erabiltzen diren eskularruak zeuden sinbolo gisa eta pankartan emakume batzuek ere horrelakoak zeramatzaten eskuan.

Aurrez esan dudan bezala, delegatuek egiten dute lan handiena. ELAko delegatua, Edurne zen megafonotik hizketan ari zena, garbitzaileen problematika azaltzen eta aldarrikapenak egiten. Nire inpresioa izan zen jendea ez zitziola kasu handirik egiten.

UGTko makilak zeramatzaten garbitzaileen (Lauhaizetako bat eta ulertu ez nuen zentro bateko bi) kuadrillatxo bati bat-bateko elkarizketa egin nien eta haiek ere, argi zuten haien lan baldintzen ondorioz kokoteraino daudela, baina aldi berean, ez daukatela esperantzarik. Deigarria izan zen batek hasieran besteei pasa ziela niri erantzuteko ardura, baina amaieran sututa, bera hasi zela erantzuten.

Hogei minutu pasa ondoren, pankarta bildu eta batzuk joan egin ziren. Hamar edo hamabost pertsonako talde bat aldiz, errepidearen beste aldean bildu zen ELAko delegatuaren inguruan. Justo ondoan eusko jaurlaritzako ELA eta LABeko langileen kontzentrazio bat zegoen, musika jartzen zuen kamioneta eta guzti. Kontzentrazioaren ondoan, garbitzaileen korroan, Edurne patronalarekin izandako negoziaketen berri ematen ari zitzairen. Hitz gutxitan, hobekuntzak eskatzen baino, ordurarteko baldintzen defentsan kokatzen zirela, absentismo altua dela medio, enpresek baldintzak okertu nahi dituztelako. Hala ere, horren aurrean, enpresen arteko batasuna hausten ari omen da eta hor ate bat irekitzen da. Hurrengo ostegunean hezkuntza sailarekin bilera izango zuela esan zuen, eta abenduaren 19an berriz ere sektoreko patronalarekin. Enpresarien posizioaren arabera, mobilizazio fase berria pentsatzen hasi beharko zirela eta beharrezkoa izatekotan, greba egitea baloratzen. Momentu horretan aurpegiak izoztuta geratu ziren. Ez zuen ia inork ezer esan, eta Edurne garbitzaileei animoak ematen amaitu zuen bere azalpena

Bilera informal laburra amaitzean, ELAko beste delegatu batekin hizketan geratu nintzen. Berak ere sindikatuen arteko talka azpimarratu zuen. Bere hitzetatik ondorioztatu nuen ELAren baldintzak objektiboki onenak zirela, *beharren* arabekoak zirela, baina askok euren bihotzaren arabera hautatzen dutela sindikatua (*la gente se deja llevar por su corazóncito*). Ideia politikoen eta behar ekonomikoen arteko talka irudikatu zuen, beraz. Greba hitza entzutean langileengan somatu nuen aurpegi-adierazpenaz galdetu nionean, argi esan zuen greba azken aukera zela. Baina momentu horretan dena hotz zegoela eta kontzentren bidez giroa berotzea zela haien asmoa. Sindikatuen eta langileen arteko harremanari dagokionez, erantzun zidan langileak akomodatuta zeudela: *si les sacas las castañas del fuego, ellas muy contentas*. Hala ere, haien erabakiak azaldu eta adostasunak bilatzen dituzte. Azkenik, gazteoi kritika egin zigun, ez dugulako kontu sozialetan parte hartzen.



DOKUMENTUEN ANALISIA

Hurrengo lerroetan zenbait dokumentu aztertuko ditugu ikerketaren ondorioak atoeratzeko tresna lagungarria izango zaizkigulakoan. Aurrez azaldu bezala, ikerketa honen helburua emakumeek soldatapeko lanaren esparruan aurrera eramandako borroken izaera aztertzea da, horretarako Donostiako hezkuntza saileko eta UPVko garbitzaileen borrokan zentratuz. Batetik, egindako behaketa eta elkarrizketetatik haratago, bestelako elementuen bidez materiala osatzeko asmoz, eta bestetik, esperientzia hau ondorio argiak ateratzeko nahikoa ez delakoan, bestelako emakumezko kolektiboen borroken inguruko dokumentuak aztertuko ditut.

Azterturiko testuak zerrendatzen hasi aurretik argitu nahi dut ez dudala zuzenean (behaketa eta elkarrizketen bidez) azterturiko borrokaren inguruko dokumentu esanguratsurik eskuratu. Haien kontzentrazioetan sindikatuetakoa delegatuek hitz egiten dute esku artean daukaten informazioa botaz eta inprobisazioz aldarrikapenak egiten eta beraz, ez dute komunikatu askorik eta ez denez oso borroka entzutetsua, haren inguruko albiste gutxi batzuk baino ez ditut aurkitu, eta oso laburrak

gainera. Hortaz, *Las Kellys* (las que limpian hitz jokotik) hoteletako garbitzaileen estatu mailako kolektiboaren inguruko testuak eta Bizkaiko zaharren egoitzetako langileen borrokaren (ia urtebeteko greba) ingurukoak.

Bi kasu horiekin ikuspuntu ezberdinetako testuak aukeratu ditut. Batetik, kolektibo bakoitzak berak idatzitakoak, *Las Kellys*-en kasuan bere web guneko informazioa kolektiboaren inguruan eta manifestua eta erresidentzietako langileen kasuan sindikatu indartsuenaren eta greba aurrera eraman duenaren (ELA) bi hilabetekako aldizkariko artikulua batzuk, ekaina-uztailekoa (222. zbk.) eta urria-azarokoa (224. zbk.). Bestetik, borroka horien inguruan kanpotik esandakoak jaso nahi izan ditut, albiste edo iritzi artikulua eran. *Las Kellys*-en inguruan, Espainiako lau egunkari nagusietako biren zenbait albiste, *El Mundo* eta *El País*enak (aipagarria da *La Razón*-en webaren bilatzailean "las kellys" jarrita iritzi artikulua bat besterik ez dela azaltzen¹, erregistratzen direnentzat soilik ikusgarria); *El diario de Mallorca*ko albiste bat, haien bizi baldintzak sakonki deskribatzen direlako. Bizkaiko egoitzetako borrokaren inguruan, berriz, *Argia*, *Naiz*, *Deia* eta *El correo*ko zenbait albiste eta *borroka garaia* da blogean Jone Bengoetxeak argitaratutako iritzi artikulua bat. Azkenik, aipatu nahi nuke turismoaren inguruan eta horren barruan kellyen kontuaren inguruko saio bat topatu dudala, *La Sexta* "Equipo de investigación" programan 2017ko ekainaren 23an emititua (http://www.atresplayer.com/television/programas/equipo-de-investigacion/temporada-1/capitulo-204-Turistificacin_2017062300587.html), baina hura ikusi ahal izateko ordaindu beharra dagoenez, ez dudala aztertu.

Garrantzia handia eman diet komunikabide handien testuei, iruditzen zaidalako komunikabideek, hein batean, eta haien arteko ezberdintasunekin, gizartearen diskurtso hegemonikoak isladatzen dituztela eta aldi berean, diskurtsoa eraikitzeke gaitasuna dutela, auzi ezberdinen inguruko iritziak jendearengan sustraituz.

Testuen azterketa hau egiterakoan zenbait elementu aztertzea interesgarria iruditu zait. Hasteko, kasu bakoitzean emakumearen² betebeharrarekiko plazaratzen duten ikuspegia aztertu nahi nuke, agerikoa baldin bada: emakumea soldatapekolangile gisa, senarraren soldataren osagarria den soldata lortzeko langile gisa, bere eremua etxean duen langile gisa... Bestalde, klaseen arteko borrokan paper aktiboa hartzen duen emakumearen inguruan ze iritzi edo trataera daukaten ikusi nahiko nuke: ea adorazio puntu batetik egiten den, edo paternalismotik, edo ukapenetik... Horretaz gain, zuzenean aztertutako kasuan langileek beraiek haien borrokan parte hartze aktibo oso zuzenik ez dutenez (sindikatuak era asistentzialistan egiten dute dena), jakin nahi nuen ea joera orokortua den edo bakarrik borroka zehatz horretan gertatzen den zerbait. Izan ere, *Las Kellys*-en borroka sindikatuetatik haratago ematen den borroka da; eta Bizkaikoa, sindikatuak gidatua izanik ere, urtebeteko greba batean aurreikusgarria zen emakumeen parte hartzea aktiboagoa izatea.

Hala eta guztiz ere, ez dut baztertzeko dokumentuen irakurketa eta lanketatik ondorioak ateratzeko, edo bestelako hausnarketak planteatzeko informazio (lan baldintzen inguruan, borroka moldeen inguruan...) baliagarria ateratzea; ez dut analisi hau aurreko paragrafoan komentatutakoaren mugen baitan planteatu nahi.

Analisia egiteko, Jokin Azpiazu Carvalloren (2012, 93-94 in Biglia y Bonet 2012) master amaierako

1 <http://www.larazon.es/busquedas/resultados/-/search/las%20kellys/false/false/19171228/20171228/date/true/true/0/0/meta/0/0/0/1> (abenduarien 28an 10:30ean kontsultatua)

2 Langile klaseko emakumeaz ari gara hemen, noski, sistemaren metabolismoa modu batean edo bestean mantentzera kondenatuak dauden emakumeek; emakume burgesaren funtzioak metabolismo horren baitan guztiz ezberdinak direlako, antagonikoak bien artean.

lanean zerrendatzen diren elementuak hartu ditut oinarri gisa. Ez ditut elementu guztiak testu guztiekin aplikatu eta analisia ez dut testuz testu egin. Bakoitzean deigarrienak ziren elementuei eman diet garrantzia, batez ere hauetan jarri dudalarik arreta: **testuaren edukia** (zertaz aritzen da, gai nagusiak...), **interakzio komunikatiboa** (nori hitz egiten dio testuak? Nor da egilea eta nola aurkezten du bere burua?), **ahotsen analisia** (zenbat ahotsak hitz egiten dute, nola agertzen dira...) **agentziak** (subjektuak agente gisa agertzen diren, zuzenean parte hartzen duten testuan...) eta **boterea, posizioa, ideologia** (zein diren testuak esplizituki edo inplizituki babesten edo kolokan jartzen dituen posizioak).

LAS KELLYS

TESTUAREN IZENBURUA	GENEROA	EGILEA	ITURRIA
Camareras de segunda para hoteles de primera	Albistea	Clara Gil del Olmo eta Estefania Gozzer Arias (El País)	https://elpais.com/ccaa/2016/01/09/catalunya/1452369409_020314.html
'Las Kellys', las limpiadoras de hotel, se asocian para denunciar su precariedad	Albistea	Camilo S. Barquero (El País)	https://elpais.com/economia/2016/10/11/actualidad/1476201889_283077.html
Vida de 'kelly': limpiar hoteles a 2,15 euros la habitación	Albistea	Manuel Jabois (El País)	https://elpais.com/economia/2016/12/07/actualidad/1481107132_924681.html
Las 'Kellys' alzan la voz: "Por un trabajo digno"	Albistea	Celia Vasco (El mundo)	http://www.elmundo.es/baleares/2017/08/26/59a14214e5fdeaa9638b45d0.html
Las Kelly reclaman un sello de calidad para hoteles que fomenten la "calidad del trabajo"	Albistea	Silvia Yus (El Mundo)	http://www.elmundo.es/comunidad-valenciana/alicante/2017/10/24/59ee0c3e268e3e21098b469a.html
'Las kellys': Las que limpian plantan cara	Albistea	Mar Ferragut (El diario de Mallorca)	http://www.diariodemallorca.es/mallorca/2017/04/30/limpian-plantan-cara/1210867.html
Quiénes Somos	Aurkezpena	Las Kellys elkarte (web orria)	https://laskellys.wordpress.com/quienes-somos/
Kelly-en manifestua	Aurkezpen testua	Las Kellys elkarte (web orria)	https://laskellys.wordpress.com/manifiesto/
Aurkezpenaren laburpena	Aurkezpen testua	Las Kellys elkarte (web orria)	https://laskellys.wordpress.com/2016/10/12/representacion-de-la-

			asociacion/
--	--	--	-------------

Lehenik eta behin, landutako testuetan azaltzen dena haintzat hartuz, hoteletako geletako zerbitzarien lan baldintzak eta horien inguruko elementuak aurkeztuko ditugu. Ondoren, Las Kellys elkartearen inguruan esaten dena eta haiek esaten dutena azalduko da, ikerketa lanerako informazio baliagarri gisa; eta azkenik, guzti horren trataera, testuetako ahotsen garrantzia eta bestelako kontuen inguruan hausnarketa batzuk mahaigaineratuko dira, lehen mailako eta bigarren mailako iturriak kontrastatuz.

Egun lan baldintza penagarriak dituzte geletako zerbitzariak (*camareras de piso*), azken bospasei urteetako joerak direla eta. Izan ere, 2012ko Lan Erreformari esker, hoteletako enpresariak zerbitzariak zuzenean kontratatu ordez, eta beraz, ostalaritzako hitzarmenaren (1.251€ko soldata) arabera baldintzak ezarri ordez, askotariko zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak azpikontratatzeko dituzte, hauek ez dietelarik erregulazio berdina jarraitu behar. Hortaz, zerbitzari izateak, garbitzaile izatera pasatzen dira; baina kategoria eta soldata (650-700€ ordaintzen zaie, batzutan Enpleguarteko Gutxieneko Soldata baino gutxiago) da murrizten zaien bakarra, egin beharreko lana berdina edo gehiago izaten den bitartean. 2.5€ ordaintzen zaie garbituriko gela bakoitzeko eta denbora finkatuak dituzte gela bakoitzeko; ez badute amaitzen ordaindu gabeko ordu extrak egiten dituzte. Hortaz, haien erritmoa geldieztina da, ez dute erretzeko denborarik ere, hoteleko gainontzeko langileek bezala. Komunera joan nahi badute, arduradunari dei bat egin behar diote, sartu zein ateratzean. Lan hori erritmo horretan eginez, lesioak izaten dituzte gehienek, normalean bizkarreko edo eskumuturretako giharretako arazoak. Pastillak hartuta hasten dira lanean, bestela ez baitute irauten. Bajarik ez dute hartzen, horrela dirua galtzen baitute edo botako arriskuagatik. Bestalde, eritasun bakarra aitortzen zaie lan gaixotasun gisa: ***síndrome de túnel carpiano***. Hori gutxi balitz, ordaindutako jai egun edo oporrik ez daukate eta hilean 6 kalitate kontrol inguru izaten dituzte, egindako lana gaizki badago, kaleratuak izateko arrisku larrian egonen dira.

Turismoaren sektoreko enpresen irabaziei erraparatzeko badiogu, agerikoa da honen arrazoia ez dela krisia, beherakadarik izan ez duen merkatu bakarrenetako bat baita. Datu bat ematearren, gau bat pasatzeko 300€ kobratzen duten hotel bateko gela batean eta hura garbitzen duenari 2.5€ ordaintzen zaie gela hori txukun uzteagatik. Hortaz, langile hauei erauzten zaie gainbalioa kristona da, haien lan indarra erreproduzitzeko juxtu-juxtu ordaintzen zaielarik. Hori 2012ko PP-ren Lan Erreformak irekitako aukera izan da, lan arloaren erregulazioa gutxienera murriztuz. Hortaz, externalizazioa da horren atzean dagoena, gainbalio gehiago erauzteko aukera ezin hobe. Edozer azpikontrata dezakete egun hoteletan, zerbitzariak, segurtasuneko langileak edo harrerako langileak.

Miseria baldintza horiei aurre egiteko Las Kellys elkarteak aurkeztu zuten 2016ko urriaren 11n, Espainiako zazpi hiri turistikotako emakumeek: Bartzelona, Benidorm, Mallorca, Palma, Cadiz, Madril, Lanzarote (El Mundoren arabera; elkartearen web gunean aldiz ez da Palma aipatzen eta Fuerteventura bai). Egun, elkartearen web gunean zortzi hiri/lurralde direla diote, Errioxa batu baitzaie. El Mundo eta El País egunkarien arabera, mobilizazioak eta kexa zein salaketak dira haien jardun nagusia. Salaketak aurkeztu omen dituzte administrazio ezberdinetan, erkidegoetako parlamentuetan, Diputatuen Kongresuan, Europar Parlamentuan... Haien helburua lan baldintzak hobetzea da patronalari, administrazioari eta sindikatuei presio eginez. Sindikatu nagusiekin ageriko desadostasuna adieazten dute, Lan Erreforma onartu zutelako eta maila lokaleagoan, enpresa komiteetan ere traizioa dutelako hizkuntza gisa. Haien aldarri zehatzen artean, geletako zerbitzarien kategoria mantendu eta ostalaritzako hitzarmenak errespetatzea, haien lanaren eragin fisiko zein psikologikoen azterketa egin eta lanaren ondoriozko gaixotasunen zerrenda zabaltzea, ordaindutako

oporak bermatzea daude. Orokorrean egiten duten lanaren aitortza eskatzen dute, zuzendari gabe hotelek aurrera egin dezaketelako, baina garbitzailerik gabe ez.

Aipaturiko elkarteari euren egoera ezagutzera ematea lortu izanaren meritua aitortzen diote, baina hala ere, "Las que limpian los hoteles" liburua argitara eman zuen turismo arduratsuan aditua den Ernest Cañadari ere meritu handia egotzen zaio. Hala ere, elkartean kide asko dauden arren, oraindik ez sektoreko langileen gutxiengo bat dira. Espainian 400.000 emakume ari dira lan horietan, gehienak familia oso bat dutelarik haien zaintzapean, askotan ama solteroak eta etorkinak direlarik. Haien egoera prekarioak nazkatzeko arrazoi ugari ematen dizkien arren, daukaten apur hori galtzeko beldurrak, eta haien egunerokoan duten denbora faltak (esate baterako, S-k -ez baitute benetako izenik publiko egin nahi- goizeko bederatzietatik arratsalde zazpiak arte dago lanean eta bere seme-alabekin egoteko duen denbora urria da, eta beraz, bere lan baldintzen alde borrokan aritzeko, askoz okerrago) antolatzaera saltoa ematea oztopatzen diete, eta gainera, lankarga izugarriak eta lan ordu extrak onartzera eramaten ditu txintik ere esan gabe. Horren aurrean batasunerako deia egiten dute Las Kellys-en baitan antolatuta daudenek, "elkar lagundu eta haien artean gaiztoak ez izatera" animatuz. Honek gogora ekartzen digu Ibaetako garbitzaileen diskurtsoa.

Las Kellys-en web gunean aldiz, beste elementu batzuegan jartzen dute arreta, hedabideetan agerturikoez gain. Gune nagusiak, izena eta horrelako informazioaren ostean, haien ibilbidea azaltzen dute. 2014an hasi ziren aipaturiko sektoreko langile batzuk sare sozialetan haien lan baldintzen inguruko testigantzak publiko egiten, kexatzeko bide gisa. Lehen horiei hiri ezberdinetako langileak batu zitzaizkien euren egoeraren berri emanez. Gerora, batzuk haien artean geratu ziren sare sozialen isolamendua gaindituz, eta laster eman zuten autoantolakuntzara saltoa, tokiko zenbait talde osatuz. Kolore politikoak gaindituta eztabaidatuz gero, pairatzen zuten lan egoera eraginkortasun handiagoz publiko egin zezaketela ikustita, 2016an erabaki zuten elkartearen eratzeari. Martxoan hasi ziren martxan eta urriaren 11n aurkeztu zuten Las Kellys elkartearen Bartzelonan.

Aurkezpenaren laburpenean aipatzen duten moduan, zazpi hilabetetan Lanaren Ikuskaritzan 30 salaketatik gora eta epaitegietan 15etik gora ezarri zituzten zenbait hotel eta turismo kateen aurka konbenioak ez bete eta lan eskubideak ez errespetatzeagatik; eta jadanik dozena bat mobilizazio inguru zituzten eginak. Salatu, presionatu eta lan eskubideen inguruko formazioa sustatzeko zeregin hirukoitzean jarraituko zutela adierazi zuten aurkezpen hartan.

Haien elkartearen aurkezterakoan etengabe definitzen dute elkarte autonomo gisa, baliabide bakarra eskaintzen dioten denbora delarik. Aurkezpenaren argi adierazi zuten: "ez gara inongo sindikaturen marka txuri bat; gure eskubideak babesteko ondoan izango gaituzte eta haien aurka egiten badute, aldiz, parean". Gainera, lan baldintzak hobetzeko presioa egiteaz ari direnean, administrazioaz eta enpresez gain, sindikatu handiak ere seinalatzen dituzte. Hala ere, borondate eta konstantzia ugari dutela azpimarratzen da haien web gunean, tokiko taldeak erregulartasunez biltzen direla doako gune irekietan. Antolaketari dagokionez, "formalismoak" dituztela aipatzen dute (zortzi hirietako ordezkariak osaturiko Batzorde Zentral bat, lehendakari bat...), baina talde lokalak era asanblearioan funtzionatzen dutela. Talde lokal horiek muga batzuen barruan bere autonomia daukate aldarriak plazaratzeko (manifestuko aldarri minimoak barnebilduta eta haiek egokituta), aliantzak egiteko (aliantza komuna #ValemosMásQueEsto kanpainia), etabar.

Manifestuan ageri diren aldarrikapenak asko eta oso anitzak dira, elkartearen kideak bezala. Izan ere, bertan langileak, lagunak eta senideak batzen dira; denek daukate helburu komunak, batetik, haien egoera aditzera ematea eta euren lan eta beraz bizi baldintzak hobetzea. Langileen artean, halaber, aniztasun handia dago: langabeak eta landunak, praktiketan daudenak eta soldatapekoak,

fijoak eta aldi baterakoak, hoteleko plantillen parte direnak eta azpikontratentzat lan egiten dutenak, jornada osokoak eta erdikoak, sindikatueta afiliatuak eta afiliatu gabeak, zerbitzariak eta beste kategoriak bat dutenak, denbora asko daramatenak eta kezka nagusizat osasuna eta jubilazio baldintzak dituztenak eta berriagoak eta haien xede gisa aurrekoek ez bizitakoa ez bizitzea dutenak... Aniztasun horren ondorioz, hauek dira haien manifestuko aldarriak: jubilazioaren aurrerapena, pentsio duinak lan penagarria aitortuz; giharretako gaixotasunak lan gaixotasun gisa aitortzea; externalizazioa bertan behera uztea; ostalaritzako hitzarmena bermatzea; lan ikusketa gehiago dagokioen zigorrak aplikatuz; lan arriskuen prebentzioa eta azterketa ergonomikoak egitea; dagozkien langile kategoriak errespetatzea; lanaren eta bizitza familiar eta sozialaren kontziliazioa; hotelen kategoria finkatzean eskaintzen duten lanaren kalitatea kontuan hartzea...

Azkenik, testuen inguruko hausnarketa xume batzuk egingo ditut. Hasteko, aipatzekoa da hedabideek hoteletako geletako zerbitzarien baldintzak narratzerakoan, egoerak pertsona ezberdinekin identifikatzen dituztela, haiek eskatuta izen faltsuak erabiltzen dituzten arren. Horrela, baldintza penagarriak deskribatzean Roxanarekin, Mariarekin edo S-rekin lotzen dituzte. Honek datuak hezur eta haragiz mamitzen dituzte, baina aldi berean, egoera orokor gisa ezkututzen dituzte, arazo partikularrak balira bezala aurkeztuz. Bestalde, sektoreko langileak diren eran, langileen ahots guztiak emakumezkoenak dira, horri dena normala; baina auziaren inguruan -gatazka objektu bihurtuz- iritzia ematen eta bueltaka dabilzanak gizonak dira: Jesus Cruz Villalón katedraduna Lanaren Zuzenbidean, Ernest Cañada turismo arduratsuan aditua eta lehen aipaturiko liburuaren idazlea, Juan Molas CEHAT-eko (Confederación Española de Hoteles y Alojamientos Turísticos) lehendakaria, Paco Galván CCOO-ko ostalaritzako arduraduna, Baltasar Picornell Balear uharteetako Parlamenteko lehendakaria manifestazio batean egoteagatik aipatzen dena... Irakurririko albisteetan emakume bakarra aipatzen da langilea ez dena, Cristina Moreno Enpleguaren Zuzendari Orokorra Valentziako administrazioan. Hortaz, nolabaiteko paper banaketa ematen da: emakumeek pairatzen dituzten euren larruetan eta egunerokoan lan baldintza penagarriak eta gizon batzuek horren inguruan iritzia ematen dute, egoera komentatzen dute, bakiak bere erara deskribatzeko tartea hartzen du...

Horretaz gain, neurtzea oso zaila den arren, somatzen dut beste era batera tratatzen direla lan baldintzen aldeko borrokan (eta beraz, era enbrionario batean, klaseen arteko borrokan) paper aktiboa hartzen duten emakumeak, bai lanaren munduaren baita eta baita hedabideetan ere. Las Kellys elkartearen lehendakaria den Myriam Barros-ek argi adierazten du: "esplotatzeko erraza den sektorea gara". Ikusi dugu zeintzuk diren emakume hauen lan baldintzak, gehienek seme-alabak dauzkatela bere gain eta lanik gabe geratzeko beldurra daukatela gehienek. Ondorio argia da borrokan jarduteko zailtasunak dauzkatela, nahiz eta aukera balute, haietako askok goitik behera aldatuko lukete mundua. Zentzu honetan, adierazgarria da Facebook orria kudeatzen duen Eulalia Corralerok zenbait mezu ezabatu izana, alde baterako kontratua duten langileen arrisku egoerak saihesteko. Beste era batera esanda, zuzeneko antolakuntza zaila egiten bazaie ere, beste era baterako protestak amorrutik plazaratzen dituzte horrelaketan. Hori dela eta, fenomeno berezi gisa hartzen da haien autoantolakuntza. Enpresariak bota izan dituzte "sindikalista xamarrik izatearren"; haien jardunaren inguruan, "mugimendu politiko baten aginduak betetzen dituztela" diote. Haiek euren burua autonomo gisa aurkezten badute ere, testuinguru sindikaletik oso gertu aurkezten dituzte hedabideetan. Paper aktibo hori objektibizatzeke beste modu bat, gutxiespenaz harago, gehiegizko adorazioa da. Horretatik ere hauteman daiteke irakurririko albisteen tonuan, heroe gisa tratatzen dituztelarik: *tienen tantas lesiones como espíritu combativo*. Azken finean, orain dela gutxi ohitu da jendartearen emakumeak lanpostuan ikustera, eta oraindik ez da ohitu lanpostu hobe baten alde pankartaren aurrean ikustera.

BIZKAIKO ZAHARREN EGOITZETAKO LANGILEAK

Kanpaldia egin dute Bizkaiko zahar-etxeetako grebalariek	Albiste	Itxaso Zubiria Etxeberria (Argia)	http://www.argia.eus/albiste/kanpaldia-egin-dute-bizkaiko-zahar-etxeetako-langile-grebalariek
Trabajadoras de residencias intensificarán las protestas en Aste Nagusia	Albiste	EL CORREO	http://www.elcorreo.com/bizkaia/trabajadoras-residencias-intensificaran-20170817165854-nt.html
Bizkaiko zahar-etxeetako grebalarien aldeko emakumeen manifestazioa, etzi Gasteizen	Albiste	NAIZ	https://www.naiz.eus/es/actualidad/noticia/20170918/bizkaiko-zahar-etxeetako-grebalarien-aldeko-emakumeen-manifestazioa-etzi-gasteizen
Patronalarekin akordio batera iritsita, amaitu da Bizkaiko zahar etxeen greba	Albiste	Miren Osa Galdona (Argia)	http://www.argia.eus/albiste/patronalekin-akordio-batera-iritsita-ostiralean-amaituko-da-bizkaiko-zahar-etxeen-greba
El conflicto de las residencias se cierra con un acuerdo mayoritario	Albiste	Olga Saez (Deia)	http://www.deia.com/2017/10/28/bizkaia/el-conflicto-de-las-residencias-se-cierra-con-un-acuerdo-mayoritario
“Uste dute emakume langile, sindikalista, eta feministok gaitasunik ez dugula”	Elkarrizketa	Onintza Irureta Azkune (Argia)	http://www.argia.eus/blogak/onintza-irureta/2017/09/27/uste-dute-emakume-langile-sindikalista-eta-feministok-gaitasunik-etz-dugula/
Más de 300 días de huelga en las residencias de la tercera edad de Bizkaia	Iritzi artikulua (<i>borroka garaia da</i> bloga)	Jone Bengoetxea (ELAko emakume saileko arduraduna)	https://borrokagaraia.wordpress.com/2017/09/17/mas-de-300-dias-de-huelga-en-las-residencias-de-la-tercera-edad-de-bizkaia/
Gran victoria de las	Kronika	Landeia	Landeia (ELAren)

mujeres de las Residencias de Bizkaia			aldizkari sindikala) 224. 25-26 https://www.ela.eus/es/landeia/landeia-224
<i>BENETAN ZORIONAK!</i>	Eskertze mezua	Adolfo 'Txiki' Muñoz	Landeia 224. 27
A CELEBRARLO... Y A SEGUIR EN LA PELEA	Eskertze mezua	Igor Eizagirre	Landeia 224. 27
<i>KAMISETA BERDEAK SINDIKATUAREN ETA BORROKA FEMINISTAREN IKUR</i>	Eskertze mezua	Leire Txakartegi	Landeia 224. 27

Gatazka honekin loturiko testuen analisia aurkezterakoan beste elementu ezberdinei arreta ezberdina eskainiko zaie. Borroka zehatzago bat denez, pairatzen dituzten emakumeen lan baldintzetan baino, borroka prozesuan jarriko dugu arreta eta borroka prozesu horretatik atera diren analisietan, gero gure analisirako baliagarriak izango baitira. Hasteko, hiru mobilizazio ezberdin eta haren ondorioen inguruko datu eta analisiak aurkeztuko dira albisteetan esaten dena oinarritzat hartuz; gero prozesu horren analisietan zentratuko gara _____.

2017ko ekainaren 9tik 11ra hiru eguneko kanpaldia burutu zuten Bilboko Arriaga antzokiaren inguruan, helburu bikoitzarekin. Batetik, Foru Aldundia zein sektoreko enpresak (Geska, Lares, Elbes) presionatzeko plantillak handitu, lan kargak arindu eta lan baldintzak hobetu zitzaten. Lan baldintzei dagokienez 1200€ soldata minimoa eta astean 35 ordura murriztea da eskatzen zutena, igandeetako extra igotzearekin batera. Gainera, hori guztia sektore osoko hitzarmen orokor batean jasotzea nahi zuten. Bestalde, herritarrei ere gatazkaren berri eman nahi zieten. Hau guztia Ainhoa Menendez ELAko ordezkariak kontatu die hedabideei.

Bilboko Aste Nagusira (abuztuak 19-26) begira, protestak areagotzea planteatu zuten (kotxe karabanak eta kontzertu, txikigun, barraka, dantzaldi eta espazio ezberdinetan presentzia), Bilbon haien egoera zabaldu eta lan gatazka baino gehiago gatazka soziala de erakutsiz. Gainera, greba gutxienez irailaren 17ra arte luzatuko dela adierazi zuten, patronalak negoziatziora behartzeko asmoz. Hala ere, bai patronala eta baita diputazioa ere ixilik daudela salatzen zuten, emakumeak ixilarazi nahian eta lanpostuan beldurra sartzen. Hau ere ELAko delegatu batek kontatzen dio El Correo-ri, kasu honetan Gaizka Miguelek.

Azkenik, irailaren 20an Gasteizen egitekoa zen -albistea aurrekoa da, eta gero egin zen emakumeen manifestazioaren inguruko beste albiste bat jaso dut, zeina mugimendu feministak ere babestu zuen. Gatazkaren genero osagaiak eta irakurketa feminista indartzeko hartu zuten manifestazio ez-misto hau egiteko hautua, lehen esan bezala, lan gatazka baino gehiago gatazka soziala, politikoa eta batez ere feminista delako: gizarte honetan behar-beharrezkoak diren zaintza lanen antolaketa erdua da jokoan zegoena. Gainera, gatazka horretan emakumeek espazio publikoan tokia hartzeko aukera zuten, benetako ahalduntze prozesua bizitzekoa. Hau guztia ere ez du langile batek esaten, baizik eta ELAko Berdintasun eta Genero arlo kide den Leire Txakartegik.

Ondorengo bi albisteak urriaren 27ko akordioaren sinaduraren lehenagoko eta ondorengoak dira. Irailaren 27an sinatu zuten ELAk eta Geskak, sektoreko enpresa nagusiak akordio edo zirriborro bat. Ordutik, Lares eta Elbes enpresekin bilerak ugaritu ziren; Lares kostata izan bazen ere,

adostasunean sartu zen eta Elbes zen zalantzan zegoen bakarra. Hala ere, lehen biak gehiengoa zirenez Elbes-en onarpenik gabe ere sina zitekeen akordioa. Nolanahi ere, urriaren 27an goizeko 9etan izandako bilera batean hiru enpresek onartu zuten azken akordio bat, aurrekoaren oso antzekoa. 2020ra arte luzatuko zen hitzarmena izan zen, non langileen eskari gehienak barnebildu ziren Gaizka Miguelek kontatu zuen bezala: 18.500€-ko soldata gordinetik 20.400€-ra (horrek esan nahi zuen 1.200€-ko 14 ordainketa, soldata garbian), asteburuko extra 1.7€-tik 2.75€-ra igotzea eta baita gauekoa ere, urtean 106 lan ordu gutxiago eta langile gehiago kontratatzea lan kargak arintzeko. Akordioa ELAk eta hiru enpresek gainontzeko ordezkari sindikalei aurkeztu zieten eta momentuan bertan UGT agertu zen ados (bien artean %80a osatzen zutelarik), eta LABek eta CC.OO.-k dokumentua aztertzea erantzungo zutela adierazi zuten.

Horren ondoren, sektore bakoitzak bere ondorioak atera zituen. Patronalak sindikatuak eskertu zituen asmo maximalistak albo batera utzi izanagatik eta akordio batean denek zeditu behar dutela azpimarratuz; Diputazioa ere pozik agertu zen, azkenaldiko planteamendu eta mentalitatearekin eserita, akordiora lehenago helduko zirena ondorioztatuz; eta sindikatu eta langileek gogoz ospatu zuten, poz eta malko artean. Mugimendu sindikalaren historian bere alea utzi duen emakumeen greba hau horrelako leloekin amaitu zuten langileek: *hemos resistido, lo hemos conseguido* edo *la lucha la gana, la gente que batalla*.

Greba honek, gainera, zaintzaren, emakumearen paperaren, emakumearen izaera borrokariaren, ahalduntzearen, eta abarren inguruko zenbait ideia utzi ditu, aurrerago aztertuko ditugunak. Hori baino lehenago, aipaturiko albisteen inguruko hausnarketa bat burutu nahiko nuke. Emakumeen ahalduntzeaz hitz egiten da behin eta berriz (eta aurrerago aztertuko ditugunetan askoz gehiago), baina ez da emakume langile horien ahotsik entzuten. Hoteletako langileen kasuan langileen ahotsak agertzen baziren, bai lan baldintzak kontatzerako garaian, baita haien inguruan kexatzeko orduan, hemen sindikatuetakoa delegatuen ahotsak besterik ez dira entzuten. Harrigarria da langileen interesak langileek beraiek markatu ordez, haien ordezkari batzuek egitea. Paradoxikoa da emakume batzuk greban dauden, eta beraz haien soldatari uko egiten dauden bitartean, beste batzuk greba horretan laguntzeagatik sindikatuaren soldata jasotzea. Izan ere, albistetan diskurtsoa sindikatuak markatzen dute, egoera haiek deskribatzen dute, hurrengo pausuak markatu... Donostiako garbitzaileen kasuan ere berdina ondorioztatatu dugu. Honek noski, badauka errealitate sozial bat, baldintza material batzuk bere atzean eta Las Kellys-ek autoantolakuntzarako hautua egina badute ere, hauek 3.000 besterik ez dira sektoreko 400.000 langileen artean, eta hemen 5.000 langile besterik ez dira Bizkaiko zaharren egoitzetakoak, eta UPVko eta hezkuntzako garbitzaileak ere antzeko zifretan ibiliko dira. Baina denetan kezagarriena da UGT eta ELAko delegatu sindikalek momentuan bertan sinatzea akordio bat, langileekin kontsultatu gabe, dokumentua langileekin batera aztertu gabe.

Hari horretatik oso interesgarria da ELA sindikatuak berak, bere Landeia aldizkarian gaia lantzeko moduari erreparatzea. Nire hipotesia kontrakoa bazen ere, greba hasi zenetik gatazka honi zatitxo bat eskaini diote argitaraturiko zenbaki guztietan, batzuetan hiru paragrafoko zutabetxo bat, besteetan orrialde oso bat eta bi kasutan hiru orrialde osorik. Batzuetan lan baldintzen edo aldarrien inguruan, besteetan deialdi ezberdinen inguruan eta beste zenbaitetan bestelako gaien inguruan, hala nola, Bilboko udalak ekainean buruturiko kanpaldia Arriaga inguruan egiteko jarritako traben inguruan. Nolanahi ere, gu urria-azaroko zenbakian zentratuko gara, borroka irabazia dagoen garaia baita. Auzia lantzeko eran zenbait elementu kontraesankor hauteman daitezke. Batetik, hedabide bat balitz bezala hitz egiten da grebalariez edo sindikatuko selegatuez: *las trabajadoras [...]logran; ELA suscribió el acuerdo; estas delegadas de ELA destacaron el hecho de que [...]*. Badirudi kanpotik behatzen ari direla prozesua, sindiaktua bera denean prozesu guztia maneiatzen duena. Gainera, ez dute hedabideek aporta dezaketen informazioaz gain beste elementurik txertatzen.

Bestalde, asko harritu naute gaiari eskaintzen zaion azken orrian sindikatuko hiru kidek grebalariei idatzitako mezuek. Txiki Muñoz idazkari nagusiak, Leire Txakartegi Berdintasun arloko kideak eta Gizalaneko Igor Eizagirrek idazten dute eta izenburu nagusiak honela dio: "Sois un orgullo para ELA". Batzuek diskurtso politikotik zorientzen dituzte, Leirek batez ere, eta beste batzuek emozioetatik gehiago, Muñozen kasuan; baina nire galdera da ea zergatik zoriondu behar dituzten sindikatuko buruek. Zergatik? Haiena sentitzen dute garaipena? Langile klaseko kide gisa edo sindikatuko soldatapeko gisa? Joera bikoitz bat ikusten da, beraz. Kanpotik begiratzen zaio gaiari hasierako kontakizunean, eta ondoren, garaipenari ELAren zigilua ezartzen diote. Azken finean langileen borrokarekin marketing-a egiten duten enpresak bihurtzen ari dira sindikatuak.

Azkenik, dokumentuen analisi *amateur* honekin amaitzeko Jone Bengoetxea ELAko emakume saileko arduradunaren iritzi artikulu batetik eta Soraya Garcíari, erresidentzietako langileekin batera borrokan aritu den ELAko delegatuari, Argian egindako elkarrizketatik ateratako zenbait ondorio, hausnarketa eta analisi komentatu nahi ditut, ikerketa lan honetako hausnarketak burutzeko baliagarria izango baita. Izan ere, askotan bulegoetatik liburu artean egiten diren diren teoriak baino sakontasun handiagoa dute kalean egiten diren teoriak, nahiz eta liburuen laguntzaz egin.

Lehenik eta behin, egoeraren deskribapen labur bat egingo dut, aurretik ere komentatu duguna laburbilduz. 300 egunetik gorako borroka gogorra; etengabe manifestatzen, elkarretaratzeetan, espazio publikoa okupatzen...; egoitzetako zaharren familiak eta zaharrak ere langileen alde; enpresetako trajedun gizonak ixiltzen ez diren emakumeei begira, emakume kuadrilla intsumiso baten harrikada izango balitz bezala, tontakeria pasa arte esperoan; administrazioa trabak jartzen: Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko diputazioa zerbitzu minimoak maximizatzen. Emakumeak, berriz, nekatuta baina borrokaren beharraz kobentzituta, atzera bueltarik gabe; jadanik lan arloko erronka bat izatetik erronka pertsonal gisa hartzera pasata, ondorio guztia onartzeko prest.

Hori kontuan hartuta deskribapen zehatzetik analisi abstraktu edo orokorragora egingo dugu salto. Erresidentzietan zaharrak eta menpekotasun handia daukaten pertsonak zaintzea, argi eta garbi lan femeninoa da; bakarrik %2 dira gizonak. Lan femenino gisa izendatutako guztiak (zaintza, arreta, komertzioa, garbiketa...) emakumeak historikoki (familia patriarkalaren garaian) izandako betebeharraren isla dira. Soldata baten truke aritzen dira orain negozio bilakatu direlako, merkantilizatu direlako. Lehen doan egitera behartuta zegoen eta egun, ordaintzen zaio, baina negozio bat denez ahalik eta gutxien ordaindu nahi zaio. Eta emakumea esentzian ez da ez bata ez bestea egiteko jaio, erresidentzietakoek oihukatzen duten bezala: ez *berezko zaintzaileak*, ez *esplotatzeko langileak!* Esaten da emakumearen soldata senarraren osagarria dela, baina hau kapitalismoak bere metabolismo osoa martxan jartzeko ezartzen duen ardura banaketaren parte da, edo enpresarien aitzakia hutsa? Sorayak enpresari bati horrela erantzun zion: kontratuan senar bat eman diguzue ala? Ba ez da horrela, baina oraindik ere familia heterosexualak papera handia jokatzeko du.

Ondorioz, argi dago emakumeak emakume gisa daudela lan merkatuan, bere esplotazio baldintza bereziki. Eta lan merkatuan emakume moduan badaude, lan merkatuko gatazketan emakume moduan aritzen dira, edo edozein langileren moduan? Ez da batere erraza hau ondorioztatzea, baina testu hauetan zenbait klabe ematen dira. Soraya Garcíak argi du emakume direlako egon direla egon diren egoeran. Gizonak aritzen diren sektoreetan ekoizpena eteteak kalte handia egiten du eta enpresak azkarrago makurtzen dira, emakumeen kasuan, berriz, gehiago iraun dezakete, batez ere %90 (egunez) eta %100 (gauez)-eko zerbitzu minimoekin. Enpresei, bestalde, grebalaria errespetatzea kostatzen zaie, ez daude ohituak emakumeak aktibo ikustera, enajenatuak daudela sinestea nahiago dute, sindikatuek maneiatzen dituztela, berez ez dutelako gaitasunik, Sorayaren hitzetan. Hortaz, kanpotik emakumeen borroka mespretxuz edo harriduraz ikusia da eta haien partez

zer? Emakume askok ez dute inoiz ikusi haien burua horrelako egoeretan, ez dute gatazkarik inoiz bizi, ez dira feminista edo borrokalari sentitu, baina prozesu hauek ahalduzko balio dute, borrokaren parte sentitzeko, babestua sentitzeko eta kalera ateratzeko. "*Nunca me he sentido tan valiente*" esan izan dute batzuek orain ausart sentitzen ari baitira: lehen beldurra zioten zuzendaritzara hitz egitera joateari, orain hortan ari dira askotan; lehen manifestazio bitartean etengabe ari ziren ordulariari begira, etxera bazkaria prestatzeko garaiz iristeko, eta orain kideekin batera gelditzen dira, etxean haiek gabe molda daitezten. Ondorioz, emakume askoren barne kontzientzia areagotu du lan gatazka horrek, daukaten indarra deskubritzeko aukera eman die, betetzen duten papera et lana baloratzeko aukera, feminista zer den sentitzekoa... Jone Bengoetxeak dioen moduan, ez dira aktiboak mugimendu feministan, baina praktikan hortan ari dira.

Laburki esanda, emakumeak baldintza bereziekin xurgatu ditu lan merkatuak. Bertan jarduten dutenean, mespretxuz jantzita daude haiei begira dauden begiak. Haiek, bere aldetik, horrelako prozesuetan ahalduzko ari dira. Baina ezberdina da borroka hauetan praktikan jartzen duten jarduna? Ezezkoan nago ni, ez dela emakume langilearen borroka forma propiorik garatu. Izan ere, sindikatuak dira borroka ororen disenatzaile eta Jonek aldarrikatzen du sindikatuek baliabide gehiago (denbora, giza baliabideak, energia, erresistentzia kutxa...) jarri behar dituztela horrelako borroketan, analisi politiko eta irakurketetatik harago. Baina hori ez al da kafea denentzat? Ez al dituzte garatu behar emakumeek haien kabuz, haien egoera partikularrari erantzuteko borroka forma propioak eta haien arteko elkartasun sare propioak? Hortxe hausnarketa, airean.